

Garabiak eramandako ibilgailuak jasotzea

Deskribapena: Garabiak Zizur Nagusiko Udaltzaingoaren biltegira (Arridia kalea, 26) eramandako ibilgailuak. Trafiko Araudiaren eta Zirkulazio Ordenantzaren arabera arau hauste gisa tipifikaturiko kasuetan dauden ibilgailuak izaten dira, eta Trafiko Araudiaren eta Zirkulazio Ordenantzaren arabera, bide publikotik ken daitezke.

Aurkeztu beharreko dokumentuak: Ibilgailuaren jabeak edo arduradunak ibilgailuen udal biltegiko bulegora jo beharko du. Agiri pertsonalak, autoaren paperak eta indarrean dagoen derrigorrezko aseguruaren ordainagiria aurkeztu beharko ditu. Aurkezturiko dokumentuak egiaztatu ostean, ibilgailua itzultzea zilegi bada, emandako zerbitzuarengatik sorturiko tasak (Ikus Zerga Tasak) ordaindu ostean itzuliko zaio jabeari ibilgailua.

Gaia tratatzeko unitatea: Zizur Nagusiko Udaltzaingoa.

Helbidea: Arridia kalea, 26

Telefonoa: 948 28 12 50 - 08:30etik 14:30era, astelehenetik ostiralera.

- Faxa: 948 18 74 33

Telefonoa: 609 487 118, 24 orduz, urteko 365 egunetan.

Epea: Ibilgailua eraman eta biltegian edukitzeko tasak Zizur Nagusiko Udalak onarturiko Zerga Ordenantzan daude ezarrita (Ikus Zerga Tasak)

Lege oinarria: Trafiko, Motoredun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikuluduna onetsi zuen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzazko Errege Dekretuaren 70. eta 71. artikulua.

Oharrak: Lapurretaren bat jasan dutelako edo titularraren baimenik gabe erabili direlako bide publikotik kendutako ibilgailuak, behar bezala justifikatzen bada, ez dute eramateagatik tasarik sortuko. Era berean, segurtasunagatik edo behar bezala Portu eta

justifikaturiko bestelako premiengatik eramandako ibilgailuengatik, jabeak garaiz aurkitu ez badira, ez da tasarik sortuko (ikus zerga tasak).